



Gradu Amaierako Lanaren deskribapena eta formatua

Kimikako Gradu Amaierako Lana pertsonala da eta saio ireki batean defendatu behar da, epaimahaiaren aurrez aurre. Gradu Amaierako Lanaren jendaurreko defentsa egin baino lehen, ikasleak Gradu Amaierako Txostena idatzi behar du, proiektua eskaini duen hizkuntzan. Txostenak parte hauek izan behar ditu: sarrera labur bat non aurrekariak, helburuak eta lan plana azalduko diren; emaitzak eta haien azalpen kritiko eta arrazoitua eta ondorioak. Lanaren laburpena eta ondorioak ingelesez ere jarriko dira. Txosten osoa ingelesez idatzita egonez gero, laburpena eta ondorioak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batera itzuliko dira gutxienez.

Hona hemen zenbait gomendio, aholkuak besterik ez, Kimikako Gradu Amaierako Lana egituratu eta idazteko: Azken buruan, ikasleak zuzendariarekin adostuko ditu xehetasun hauek:

AZALA

1. eranskinean azalaren adibide bat dago. Edozelan ere, azalean honako xehetasun hauek agertu behar dira:

- Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
- Facultad de Química/Kimika Fakultatea
- Kimikako Gradua
- EHUren logo ofiziala
- Gradu Amaierako Lana
- Lanaren izenburua
- Egilearen izena
- Lanaren zuzendariaren izena; hala dagokionean, zuzendarikideenak.
- Defentsaren data (urtea eta hilabetea)

LABURPENA

(Egitura). Lanaren laburpen txiki bat. Horren itzulpena ingelesera. Txosten osoa ingelesez idatzita egonez gero, laburpena eta ondorioak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batera itzuliko dira gutxienez.



GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUEN (GIH) IDENTIFIKAZIOA ETA GOGOETA

Atal honetan, gutxienez 200 hitzeko hausnarketa egingo da Garapen Iraunkorrerako Helburuekin (GIH) lotuta egindako lanari buruz.

<https://www.ehu.es/es/web/iraunkortasuna/ehuagenda-2030>

<https://www.un.org/sustainabledevelopment/>

<https://www.un.org/sustainabledevelopment/news/communications-material/>

https://unstats.un.org/sdgs/indicators/Global%20Indicator%20Framework_A.RES.71.313%20Annex.Spanish.pdf

<https://sustainabledevelopment.un.org/content/documents/11803Official-List-of-ProposedSDG-Indicators.pdf>

<https://sustainabledevelopment.un.org/content/documents/11803Official-List-of-ProposedSDG-Indicators.pdf>

Azterlanaren SARRERA

Aurrekariak azalduko dira eta gainbegiratuak egingo zaio bibliografiari, behar bezala dokumentaturik. Helburua(k) zehaztuko dira, lan plana eta azterketaren arrazoiak.

ESPERIMENTALA

Azterlanaren diseinua azalduko da, eta erabilitako teknika esperimentalak deskribatuko dira, bai eta haien erabileraren baldintzak ere.

EMAITZAK ETA HAIEN AZTERKETA

Helburuetarako esanguratsuak diren aurkikuntza nagusiak azalduko dira, eta modu kritikoa eta arrazoituan aztertuko dira. Hala dagokionean, ikasleak bere azterlanean lortutako emaitzak erkatuko ditu bibliografiaren gainbegiratuan jaso dituen beste azterlan batzuetan aurkitutakoekin.

ONDORIOAK

Nabarmendu behar dira lortutako emaitza nagusiak eta azterlanak gaur egungo jakintzari egiten dion ekarpena. Ondorioak lortutako emaitzetan oinarritu behar dira, eta ez dira emaitzen deskribapen hutsa izango. Ondorioak ingelesera itzulita ere jasoko dira. Txosten osoa ingelesez idatzita egonez gero, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batera itzuliko dira ondorioak gutxienez.

BIBLIOGRAFIA

Aipu bibliografikoak zenbakiarekin zerrendatuko dira, testuan agertzen diren hurrenkeran. Lana egiteko erabili direnak baino ez dira jarriko.



KIMIKA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE QUIMICA

ADIMEN ARTIFIZIALA (AA) SORTZAILEKO TRESNEN ERABILERA
EHUk AAren erabilera deklaratzeko prestatu duen txantiloia erabiliko da.
Txantiloia ondorengo estekan agertzen da:
<https://www.ehu.eus/eu/web/adimen-artifiziala/c%C3%B3mo-declarar-el-uso-de-la-ia-generativa>

Txostenaren luzera gehienez 50 orrialdekoa izango du, eranskinak kontutan hartu gabe..

Testua idazteko gomendatzen da EHUSans tipoa erabiltzea gaztelaniarako eta EHUSerif euskararako, EHUko estilo liburuari jarraiki.

Lerroarte 1,5koa izango da eta paragrafoen artean tarte bikoitza utziko da.



KIMIKA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE QUIMICA

1. ERANSKINA

GRALaren AZALAREN ADIBIDEA



KIMIKA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE QUIMICA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

Facultad de Química/Kimika Fakultatea

Kimikako Gradua

GRADU AMAIERAKO LANA
⟨Lanaren izenburua/⟩

Egilea: ⟨Lanaren egilea⟩

Zuzendaria(k): ⟨Zuzendariaren edo zuzendarikideen izenak⟩

Donostia, ⟨urtea⟩ko ⟨hila⟩